

# Bero-beroan

## Kaixomaitia.com

**HARREMANETARAKO** web gunea ireki berri dute. Euskara hutsean dago eta ordaindutako harpidetza bidez eskaintzen ditu zerbitzuak. Lehenengo 500 erabiltzaileek harpidetza doan izango dutela iragarri du web guneak.

## HPSren diru-laguntzak

**EUSKO JAURLARITZAKO** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskararen erabilera sendotzeko 2007ko deialdi publikoen bidezko diru laguntzen aurkezpena egin du. HPSk 12,525 milioi euro banatuko ditu aurtentzen, iaz baino %19,7 gehiago. Bost dira diruz lagunduko diren arloak. Hedabideentzat 5.575.000 euro izango dira, horietatik 575.000 euro tokiko telebistentzat. Aurtengo hazkunderik handiena herri aldizkarietara izango dute. Enpresetan euskararen erabilera planak egin edota garatzeko

2.300.000 euro bideratuko dira. Udaletan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) diseinatu, abian jarri edo garatzeko 1.600.000 euro. Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT) euskarazko baliabideak eta aplikazio berriak sortu eta garatzeko 1.350.000 euroko diru laguntzak emango dira eta, aisialdian, kiroletan edota kultur jardueretan euskararen erabilera sustatzeko berriz, 1.250.000 euro.

## Haur Eskolak Euskaraz plataforma Iruñean

**IRUÑEKO** hainbat gurasok eta hezkuntza arloko profesionalak sortu dute plataforma. Iruñeko Udalarri eskatu nahi diote euskarazko haur eskolak irekitzeko. Iruñean, 16 haur eskolatik bi dira euskarazkoak eta 123 haur sartzen dira. Azken hamabi urteotan euskarazko haur eskolarik ez dela zabaldu salatu dute plataformako kideek.

## Barañaingo Udalarri Lamien Urrezko Orrazia

**IRUÑEKO ZALDIKO MALDIKO** elkar-teak urtero banatzen ditu Lamien Urrezko Orrazia eta Asto-Masto sariak. Lehenengo saria Barañaingo Udalarri eman dio Bai Euskarari proiektuko sustatzaile eta parte-hartzaile izan delako. Asto-Masto saria Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore Pedro Burillori eman diote, euskararen alde hartutako konpromisoak ez dituelako bete.

## Seaska haserre EEPrekin

**ESKOLA KARTA** dela eta bazterrak harrotu dira Ipar Euskal Herrian. Ixabel Xarriton Seaskako lehendakariaren esanetan, “euskarazko irakaskuntzarentzat EEP eraginik gabeko tresna da, irakasleak hartzeko irizpideak finkatzeko engaiamendu hartu zuen, baina ez dute bete”.

## BAHEA

**Xabier Zabaltzak *Noticias de Gipuzkoan* esanak:** “Hemen, norma-lean, beti kezkatzen gaitu jakiteak euskaraz zenbatek zekiten. Baina ez dugu lanik hartzen aztertzeke zenbatek zekiten erdaraz. Oso galdera funtsezkoa da hori. (...) Bizkaieraren eta nafarreraren arteko aldea handiagoa da katalana eta gaztelaniaren artekoa baino. Baina Euskal Herrian nazio kontzientzia edo gizarte kontzientzia bat dagoenez, euskarari hizkuntza bakarria deritzogu”.

**Pako Aristik *Berrian* esanak:** “Iruditzen zait euskarari jartzen diogun arretak estali egiten dituela liburuaren beste dohain batzuk, dohain literarioagoak, nahi baduzue. Hemen, badirudi idazle izateko filologo ere izan behar duzula, euskaltzain oso, birgeria sintaktikoetan maisu eta, ahal bada, Iparraldeko hiztegiaren jabe. (...) Oraindik egin gabe legokeen fetotzat daukagu euskara, eta hizkuntzaz hainbeste kezkatzeak oso estilo antiliterarioa sortzen du sarritan”.

## ELGEren errezetak

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak produktibitate eta lehiakortasunari buruzko aholkuak emateko ohitura du, betiko errezetak aplikatuz. Errezetok beti egiten dira langileen interes eta eskubideen aurka, inoiz ez enpresaburuaren aurka. Hala, hazkuntza azkartzeko gomendioak emateko urteko txostenetan, ELGEk Espainiako Estatuari gomendatu dio kontratu mugagabea duten langileen kaleratzea merketu dezan. Eta “aldibaterako eta finkoaren” arteko kontratu bakar baten erdua susta dezan ere eskatzen dio, kaleratua izaten bada langilearen konpentsazioak gutxituko dituen bat. Lan erreformekin, Espainiako Estatu dagoeneko ari da kaleratzeak merkeagotzen. Areago, mugagabe bihurtzen diren aldi baterako kontratuak, diru-laguntza jasotzeaz gain, askoz ere merkeagoak dira kalera-

tzerako unean. Horrela enpresaburuak bi aldiz egiten zaie mesede: kontratatzerakoan, administrazioengandik diru-laguntzak jasoaz, eta kaleratzerakoan, askoz ere kalteordain merkeagoak ordainduz bidegabezko kaleratzeengatik. Filosofia neoliberalak aplikatuz, ELGEk ahaztu egiten ditu enpresaburuentzako “errezetak”. Hala, ELGEk ez dio ezer metatzen dituzten irabaziei buruz. Irabazioak ez dituzte produktibitatea hobetzeko berriz inbertitzen, ezta lan ezbeharren prebentzioan ere, ezta soldatak hobetzen ere. Ez dio ezer kapital handiagoa metatzeko finantza produktuetan inbertitzen dituzten irabazi horiei buruz. Ez dio ezer lan kontratazioetako iruzurrez, ezta zerga-iruzurrez ere. Errezeta zaharrak eta antisozialak dira.

Juan Mari Arregi

## Bizitzaz eta lorpenaz gozatzeko eskubidea

**FILIFE BIDART** espetxetik atera zenean, Ipar Euskal Herriko historiaren ziklo bat itxi zen sinbolikoki, Iparretarrak erakunde armatuarena, hain zuzen. Eta pentsa liteke, ziklo hori modu duinean bukatu dela, Lizarra-Garaziko Akordioaren itzalean erakunde armatuak berak erabaki zuelako aspaldi geldirik zuen bere jarduerari azken mugarrira jartzeari. Bidarten IKren aldeko oihuak duintasun hori islatzen

zuen, berak, bere garaian Frantziako justiziak ezarritako espetxe zigorra bete du —azken ondorioak pairatzen ari bada ere—, baina horrek ez du behartu bere iragana ukatzera.

IKren jardunak Iparraldeari ez diola ezer ekarri pentsatuko du askok eta beste askok, aldiz, lozorroan ziren herritar abertzaleen kontzientziak pizteko balio izan zuela. Historiak jarriko du bere lekuan uste bakoitza, edo bakoitzak gordeko du bere historia eta kito, hori ere zilegi da eta.

**DUINTASUNARI** eutsi guran ari dena, oraindik preso jarraitzen duen Iñaki de Juana da. Baina duintasunari bakarrik ez, 100. eguneko gose greba gaindituta eta zigorra hiru urtera jaitsita, bizitzari ere eutsi beharko lioke inoiz euskal presoek egindako gose greba arrakastatsuen burutu duenak. Egindakoa egin ondoren, De Juanaren gorputzak ez luke merezi bere bihotzak —edo dena delakoak— orain huts egitea eta atzeraezinezko egoeran jartzea.

Bai, bere azken auzi honek justiziarekin zerikusi gutxi duela badakit, Espainiako Auzitegi Gorenak azkenik 3 urtean utzi duela hasierako 96 urteko eskari hura, gero Auzitegi Nazionalak 12 urteko espetxe zigo-



Iñaki de Juanaren borrokaldia inoiz euskal presoaren artean izan den eraginkorrena eta entzutetsuena izan da seguruenik.

rrean finkatu zuena. Gehiena esana dago alde horretatik.

Espainiako Gobernuarena da orain erabaki nagusia, eta justiziazkoena eta politikoki eraginkorrena honek kontzientziatzeko preso baldintzapeko askatasunean jartzea litzateke, aurretik beste askorekin —Galindo, Vera...— egin den moduan. Baina erabaki bitartean De Juanaren bizitzak arriskuan jarraitzen du. Presoaren erabakiak begirune zorrotza merezi du, bai aurrera segitzea erabaki duenean, bai bere borroka bertan behera utziko balu ere. Azken erabaki honek, dena den, begiruneaz gain, maite dutenen eta bere gose greba jarraitu eta sostengatu duten guztien poza eta lasaitasuna ere ekarriko luke.

**BATASUNA** hauteskundeetara nola demontre aurkeztuko den, hori da bolo-bolo politikari eta herritar askoren buruan dabilen galdera. Eta badirudi azken korapiloa ez dela martxoaren bukaera edo apirilaren lehen egunak arte askatuko. Hor izango da bake prozesuaren egoeraren azken hilabeteetako termometrorik esanguratsuenak.

Alderdiek —lehen bezala PP ezik— euren harremani eusten diete, eta pentsatzekoa da ez dela izango

elkarrekin kafea hartzeko bakarrik. Helburua alderdien mahaia eratzea da, baina zeregin honen zailtasuna agerikoa da, Barajas-koaren aurreko egoerara itzultzea berez gaitza delako eta, nagusiki, Anoetako eskemak ETA eta Gobernuaren arteko negoziazio mahaia ere eratuta eskatzaren duelako.

Maiatzeko hauteskundeetan aurretik, beraz, nola irudika-

tu Rodríguez Zapatero ETArekin berriz hitz egingo duela esanez? Orain gaitza, oso gaitza, baina gero urtebete geratzen da 2008ko Espainiako hauteskunde orokorretarako eta hor mugimendu aukera gehixeago izan dezake Zapaterok. Egia esan, bakea bide politikoetatik lortzeko bere lehengo ahaleginean dabilela iradokitzen du behin eta berriz, asteburuan Gasteizen bezala. Zaila bai, baina 2008an PPri gailentzeko ia aukera bakarra ere bai. Batasuna mugimenduak egiten ari da, ETak ere eman beharko du beste urrats esanguratsurik, eta Espainiako Gobernuak ere bai. Bestela jai.

**EZKER BATUAK** eta Aralarrek argiago dituzte euren urratsak eta koalizioaren formularekin eutsiko diote udal hauteskundeetan erronkari EAEn. Bitxia eta ezohikoa da saioa, batez ere independentistak eta federalistak biltzen dituelako, tradizio politiko desberdinetatik datorren jendea batzen duelako. Erdian bildu dira, erabaki eskubidean, eta ikusiko da ea horrek erakarpenik duen urteak joan eta urteak etorri gehientsuenean oso antzera agertu den euskal hauteskundeetan mapan. Ausardiari berderen ez zaie falta izan.